


Udazken-negurako partzelaren plangintza



**Baratze bat nahi dizüt egin...
... mila kolorez dantzari bihurtetan**

1. SARRERA

Dokumentu honi atxikirik bi elementu erabilgarri eskaintzen dizkizugu, batetik udazken-neguari begira buruturiko PLANGINTZA (30m²-ko baratzerako) eta ohiko barazkien EGUTEGIA bat, Gipuzkoako baldintzetara egokitua. Plangintza hau udazken-neguko baratza antolatzeko proposamen bat besterik ez da (beste aukera askoren artean), eta ondorioz abuztutik urrira arte egin beharko liratekeen landaketa/ereintzak aurkituko dituzu.

Barazki hauek baratzean negu bukaera edo udaberrira arte izango dituzu (barazkiaren arabera), bakoitza bere zikloaren arabera garatuz, uzta emanaz eta desagertuz. Hau egoki gauzatzeko oinarritzko informazio bat ezagutzea komeni zaizu.

2. OINARRIZKO INFORMAZIOA

2.1. PLANGINTZAREN AZALPENA

Plangintzan landaketa markoa berezituta ageri da:

- Horizontalean hileraren arteko distantziak ageri dira zentimetrotan.
- Barazkien izenarekin batera, hileraren bereko landareen arteko distantzia ageri da zentimetrotan.

2.2. EGUTEGIAREN AZALPENA

“Landaketa markoa” zutabearen barazki bakoitzak behar dituen espazioak bi zenbakiren bitartez azaltzen dira, zentimetrotan neurtuta:

- Lehen zenbakia hileraren bereko landareen arteko distantziari dagokio.
- Bigarren zenbakia barazki beraren bi hileraren arteko distantziari dagokio.

Koloretako grafikoan barazki bakoitza erein eta landatzeko garai egokiak aurkituko dituzu.

- Informazio orientagarria da eguraldi eta lekuen arabera garaiak alda daitezke.
- Askotan barazki landareak erosi ohi ditugu beraz landaketa garaiak begiratu.
- Erein ezkerreko dagokion kolorea begiratu zein hilabetetan erein daitezkeen jakiteko.

3. NORK BERE PLANGINTZA BURUTZEKO IRIZPIDEAK

1. Garaian garaiko barazkiak identifikatu egutegia erabiliz.
2. Gosearen araberrako taldekatzeak antolatu ikastaroan azaldu bezala.
3. Bakoitzaren landaketa markoa identifikatu.
4. Bakoitza erein edo landatzeko hilabete egokiak identifikatu.
5. Ziko azkarreko barazkiak identifikatu (30-45 egun arteko zikloak).
6. Ziklo luzeko barazkiak (tomate, piper, kuitxo ...) planoan jartzen hasi landaketa neurrien arabera eta taldekaturik.
7. Ziklo azkarreko barazkiak landatu berriak diren eta hileraren zabala dutenen artean sartu.
8. Bizikorrak diren landareak izkintetan jarriko ditugu (azedera adibidez).

4. PLANGINTZAREN INGURUKO OHARRAK

1. Landaketa plangintza hau udazken-neguan gure baratza nola antolatu behar dugun jakiteko da baina horrek ez du esan nahi landaketa eta ereintza guztiak aldi berean egin behar direnik. Barazki bakoitzak bere landatze-ereite aldia du eta hori errespetatuz osatuko dugu gure baratza (azenarioak adibidez, beranduenez abuztuan ereingo ditugu; ilarrak aldiz hobe otsailean egiten baditugu).
2. Azaloren kasuan, ziklo luzera ezberdinetakoak landatuko ditugu, modu honetan, negu osoan zehar jan ahalko ditugu. Gainera, ziklo motzeko barazkiak jaten goazen heinean, baratzean leku hutsa utziz, bertan ilar eta babak ereiteko aprobeztatu ahalko dugu.
3. Planifikazio honetan azaltzen diren barazki asko negukoak dira (azalorenak, eskarolak, porruak...) **baina nahi izanez gero** udaberri-uda garaian ere landa daitezke. Beste batzuk aldiz, naiz eta neguan ere landatzen ditugun, udaberri-uda garaian hobeto hazten dira, adibidez, letxugak.
4. Ilar eta babak urria-azaroan erein daitezke, hala ere, gure iritziz hobe da otsaila inguruan ereiten baditugu. Bitartean, hauentzat hutsik utzi dugun lekuan, ziklo motzeko azalorenak sartu ahalko ditugu adibidez.
5. Plangintza honetan, neguan jarri ahal diren barazki gehienak kokatzen saiatu gara. Gero norberak, norbere gustuen arabera, batzuei espazio gehiago edo gutxiago eman beharko die.
6. Porruen artean ondoztatzeko behar adina leku izateko espazioa utzi dugu. Nahi izanez gero, ilaren artean, ziklo motzeko landare ezberdinak jarri ditzakegu.

UDAZKEN-NEGURAKO 30 m²-KO PARTZELAREN PLANGINTZA



	BARATZEKO BARAZKIEN EGUTEGI OSATUA	Ermetze denbora (egunak)	Ermetzeko t ^a			Zikloaren iraupena (egunak)	Landaketa markoa	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	
			mn.	optima	max.															
1	Alberjina	7,10	15	25	35	240	40 x 70													1
2	Angurria (Sandia)	6,8	13	25	35	240	100 x 100													2
3	Apioa	15,20	5	20	30	360	30 x 40													3
4	Arbitxoak	4,6	5	15	30	30	5 x 15													4
5	Ardi mihia edo kanonigoak	12,15	5	20	31	210	10 x 20													5
6	Artoa	10,12	5	15	30	180	30 x 90													6
7	Neguko azak	5,6	5	25	35	90	50 x 70													7
8	Neguko Azaloreak	5,6	5	25	35	90	50 x 70													8
9	Azenarioa	12,15	12	18	30	240	10 x 30													9
10	Baba haundiak	12,15	5	15	25	150	15 x 80													10
11	Barazuria	12,15	5	15	25	180	10 x 30													11
13	Borraja	5,6	2	15	25	120	25 x 30													13
14	Brokolia	5,6	5	25	35	150	50 x 70													14
15	Bruselako aza	5,6	5	25	35	240	50 x 70													15
16	Edankuia edo kalabaza	5,10	10	25	35	240	100 x 250													16
17	Erremolatxa	12,15	10	25	35	240	10 x 30													17
18	Ilarrak	5,10	12	20	30	120	10 x 90													18
19	Jateko arbia	3,6	5	20	30	90	20x35													19
20	Kardua	10,12	5	20	30	1000	80 x 100													20
21	Kuiatxoak (kalabazina)	5,10	10	25	35	240	100 x 100													21
22	Lekak (Baina eta babarrunak)	5,10	2	20	30	90	40 x 100													22
23	Lonbardako aza	5,6	5	20	30	90	50 x 70													23
24	Luzoker edo pepinoa	3,7	12	26	35	180	60 x 100													24
25	Meloia	3,7	12	26	35	240	100 x 100													25
26	Neguko eskarola	7,8	5	15	25	150	25 x 30													26
27	Orburuak	10,12	5	20	30	1000	100 x 100													27
28	Patata	20,25	5	20	30	120	30 x 70													28
29	Perrexila	20,3	5	20-25	30	360	20 x 20													29
30	Piperra	3,5	13	20-25	35	210	40 x 60													30
31	Porrua	10,12	7	15-18	30	210	10 x 30													31
34	Tipula	8,10	5	20	30	120	10 x 25													34
35	Udaberriko tipula	8,10	5	20	30	360	10 x 25													35
36	Tomatea	5,8	12	20	35	210	40 x 80													36
37	Uraza berdea (letxuga)	7,8	5	15	25	45	25 x 30													37
38	Uraza gorria	7,8	5	15	25	45	25 x 30													38
39	Zainuriak	20,3	5	15	25	1000	25 x 30													39
40	Zerba	7,9	8	20	30	360	30 x 40													40
41	Zizerba edo espinakak	5,7	5	20-25	30	120	25 x 30													41

Landarearen Hazkuntza
 Ereintza
 Landaketa

OHARRA: Taulan ageri diren landaketa aldiak ohikoak dira eta orientabide bat, ezerezetik hasi berria den pertsona batentzat. Baratzean ez dago erregela finko bakarra eta baratzeazain bakoitzak bere ingurunera zein beharretara hobekien egokitzen den garaia errespetatzen du. Adibide gisa aza, azalore ... urte guztian erein, landatu eta bildu daitezke baina ez da ohikoena.